

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Hasiera ematea ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2024ko bilketari

Landa eta hiri ondasun higiezinaren eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2024ko ordainketak egiteko aldia jakinarazten da.

1. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: udalak ondasun higiezinaren gaineko zerga bi zatitan bilduko du, eta zati horietako bakoitza ordaindu beharreko kuotaren ehuneko 50ekoa izango da.

Lehenengo ordainketa. 2024ko ekainaren 26tik abuztuaren 26ra. Udala arduratuko da helbideratutako ordainagiriak kobratzeaz, eta hori 2024ko ekainaren 27an egingo du.

Bigarren ordainketa. 2024ko urriaren 23tik abenduaren 23ra. Udala arduratuko da helbideratutako ordainagiriak kobratzeaz, eta 2024ko urriaren 24an egingo du.

b) Premiamendu aldia: Lehenengo epea, 2024ko abuztuaren 27tik aurrera.

Bigarren epea, 2024ko abenduaren 26tik aurrera.

Bi epeetan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, eta dagokion erreklama aplikatu (Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 28. artikulua).

2. Ordaintzeko tokia eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak.

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideraketaren banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak.

Ordainketa banku batean helbideratuta ez dutenek ordainketa zein banku kontuetan egin dezaketen adierazten duen udalaren abisu bat jasoko dute haien etxeetan, eta borondatezko aldiaren soilik egin ahal izango dute ordainketa, Kutxabank edo Laboral Kutxa banku erakundeetan edo Iruraiz-Gaunako Udalaren egoitza elektronikoko ordainketa pasabidearen bitartez: <https://udaleneagoitza.araba.eus/experta/iruraizgauna>.

3. Gomendioak:

Bankuko helbideratzeen alta edo aldaketak, zein interesdunei jakinarazpenak egiteko helbideratutako aldaketak, Iruraiz-Gaunako Udalaren bulegoetan izapidetu behar dira: kale bakarra 4, Azilu.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Azilu, 2024ko ekainaren 14a

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA